

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

531

EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 13koa, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria, osasun-prestakuntza espezializatuko tutoreak akreditatzeko eta berrakreditatzeko prozedurarako deialdia egiten duena (2023).

Otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuak, osasun-zientzietako espezialitateak zehaztu eta sailkatzen dituenak eta osasun-prestakuntza espezializatuaren sistemaren alderdi jakin batzuk garatzen dituenak, 12.2 artikuluan adierazten duenez, autonomia-erkidegoek, tutoreen gaitasunak egokiak direla eta horiei eutsiko zaiela bermatzeko, horiek egiaztatze eta berriz egiaztatze ebaluazio-prozedurak arautuko dituzte aldizka, Osasun Lanbideen Antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legearen 10.1 eta 10.3 artikuluetan xedatutakoari jarraikiz; horretarako, kontuan hartuko dira, besteak beste, espezialista gisa etengabeko lan-esperientzia, irakaskuntza-esperientzia, etengabeko prestakuntzako jarduerak, ikerketa- eta kalitate-hobekuntzako jarduerak, irakaskuntza-metodologietako prestakuntza espezifikoa eta lortutako gogobetetasun-mailari buruzko inkestak.

Era berean, lehenengo xedapen gehigarriaren lehenengo apartatuak ezartzen duenez, sortu berri diren osasun-zientzietako espezialitateetan eta hura indarrean sartzean garatu ez diren edo ezartze-aldian dauden espezialitateetan, tutoreak izendatzeko eskatzen diren baldintzak dago-kion espezialitatearen lanbide-eremuarekin bat datorren esperientzia egiaztatuarekin ordeztuko dira, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak horietako bakoitza egiaztatze betekizun orokorrak onartzean zehazten duten moduan. Familia- eta komunitate-erizaintzaren espezialitatearen kasuan, maiatzaren 9ko PRE/861/2013 Aginduak, zeinaren bidez ezartzen baitira familia- eta komunitate-erizaintzako eta familia- eta komunitate-medikuntzako espezialistak prestatzeko irakaskuntza-unitate multiprofesionalak akreditatzeko betekizunak, tutoreak izendatzeko eskatzen diren betekizunen ordeztu, haren eranskinaren bigarren puntuaren ezarritako irizpideak ezartzen ditu, aldi baterako eta gehienez 2 urtez, erizaintzako espezialitateei buruzko apirilaren 22ko 450/2005 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako konpetentzia-ebaluazioaren proba amaitzen denetik aurrera.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-prestakuntza espezializatuaren sistemaren antolamenduari buruzko martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuak kide bakarreko irakaskuntza-organoak eratzen ditu, eta 21. eta 25. artikuluetan ezartzen du tutoretzan jarduteko akreditazio- eta berrakreditazio-prozedura. Prozedura hori hasiko da Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak eskabideak aurkezteko epea irekitzen duenean.

Aurreko xedapenetan ezarritakoa betetzeko,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoan prestakuntza espezializatuko tutoreak akreditatzeko eta berrakreditatzeko deialdia onartzea eta argitaratzea, I. eta II. eranskinetan aurreikusitako oinarrien arabera.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan.

Hirugarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 13a.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria,
MIGUEL SÁNCHEZ FERNÁNDEZ.

I. ERANSKINA

OSASUN-PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUKO TUTOREAK AKREDITATZEKO
DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengo oinarria.– Xedea.

Deialdi honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-prestakuntza espezializatuko tutoreak akreditatzea.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza arduratuko da prozedura honetaz, eskabideak izapidetzeaz eta ebazteaz.

Bigarren oinarria.– Eskatzaileen betekizunak.

1.– Osasun-prestakuntza espezializatuan tutoreak akreditatzeko deialdi honetan parte hartu ahal izango dute egoiliarren tutoretza-lanak egin nahi dituzten pertsonak, martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuak zehazten duen tutore nagusiaren figurarekin, baldin eta, betiere, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Osasun-zientzietako espezialistaren titulu ofiziala izatea, tutoretza-ekintza garatuko duen espezialitatean.

b) Zerbitzu aktiboan egotea, irakaskuntza-zentro edo -unitate akreditatuaren edozein egituratan.

c) Gutxienez urtebeteko esperientzia izatea bere espezialitateko asistentzia-jarduera espezifikobatean, akreditatutako irakaskuntza-zentro edo -unitate berean.

2.– Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute, halaber, familia- eta komunitate-erizaintzako egoiliarren tutore izateko akreditazioa lortu nahi duten pertsonak, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Gutxienez urtebetez zerbitzu aktiboan egotea, dagokion irakaskuntza-zentro edo -unitate akreditatuaren edozein egituratan.

b) Esperientzia egiaztatua eta jarraitua izatea familia- eta komunitate-erizaintzaren lanbide-eremuan, azken bost urteetan.

c) Familia- eta komunitate-erizaintzako ikerketa eta/edo komunikazio zientifikoko proiektubatean parte hartu izana azken bost urteetan.

3.– Deialdi honetan parte hartu beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren antolamenduari buruzko martxoaren 6ko 34/2012 Dekretua indarrean jarri ondoren behin-behineko izendapena duten tutoreak, tutoretza-funtzioa betetzen jarraitu nahi badute.

Hirugarren oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

1.– Epea.

Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2023ko abenduaren 29an amaituko.

2.– Aurkezteko modua.

2.1.– Eskabide-eredua.

Ebazpen honen III. eranskinean agertzen den ereduaren arabera aurkeztuko da prestakuntza espezializatuko tutoretza-lanak egiteko akreditazio-eskabidea.

2.2.– Aurkezteko lekua.

Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen formulario normalizatuaren bidez (<https://www.euskadi.eus/y22-home/es/>), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan eta Administrazio Elektronikoi buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 28. artikuluaaren lehenengo paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta eskatzen zaien gainerako dokumentazioa. Halaber, eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.3.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak egiaztatuko du, ofizioz, bigarren oinarrian eskatutako baldintzak betetzen direla, eta Profesional Sanitarioen Euskal Erregistroko datuak bilduko ditu. Baldintzak ezin badira egiaztatu erregistro horretan daturik ez dagoelako, interesdunari dokumentazio osagarria aurkezteko eskatuko zaio.

Eskabide-agiri normalizatuarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Tutoretza-helburuen proiektua, honako atal hauek izango dituen:

- Espezialitatearen prestakuntza-ibilbidea.
- Banakako prestakuntza-plana egiteko kontuan hartu beharreko alderdiak.
- Prestakuntza-ebaluazioa.
- Urteko eta amaierako ebaluazioa.

b) Familia- eta komunitate-erizaintzako espezialitateko tutore gisa egiaztatu nahi duten pertsonentzat: azken 5 urteetan familia- eta komunitate-erizaintzako berriazko ikerketa-proiektu edo komunikazio zientifiko batean parte hartu izana justifikatzen duen dokumentazioa (proiektuaren ikertzaile nagusiak emandako ziurtagiria edo komunikazio zientifikoaren kopia).

2.4.– Eskabideak zuzentzea.

Eskabideak ez badaude behar bezala beteta edo haiekin batera ez bada adierazitako dokumentazio guztia aurkezten, eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko. Era berean, jakinarazi egingo zaio, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela.

Laugarren oinarria.– Eskabideen balorazioa.

Balorazio-batzorde batek aztertuko du eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak izendatuko ditu batzordekideak, eta honako kide hauek izango ditu: akreditaziorako hautagaiak aurkezten diren ikastetxe edo unitateetako ikasketa-buruak, zentro edo unitate horietako irakaskuntza-batzordeko kide diren tutore akreditatuak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren eta Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren ordezkariak. Gehienez 7 kide izango dira.

Balorazio-batzordeak, dokumentazioa aztertu ondoren, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzari. Balorazio-prozesuan elkarriz-

keta bat egin ahal izango da, hautagaiek tutoretza-lanak egiteko duten interes pertsonala eta motibazioa ezagutzeko.

Bosgarren oinarria.– Ebazpena.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak berariazko ebazpen arrazoi-tua emango du eskatutako egiaztapena onartzeko edo ukatzeko, hiru hilabeteko epean, eskabidea aurkezten den egunetik aurrera. Epe horren zenbaketa eten egingo da interesdunek eskabideak zuzentzeko eta hobetzeko eskatzen den epean.

Ebazpena eskatzaileari jakinaraziko zaio, baita dagokion irakaskuntza-zentro edo -unitatearen erakunde titularraren zuzendaritza-organoari eta dagokion irakaskuntza-batzordeari ere.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikularekin eta hurrengoekin bat etorriz.

Seigarren oinarria.– Akreditazioaren ondorioak.

Akreditazioa emateko ebazpenak berarekin dakar interesdunak beharrezkoa den gaikuntza lortzea, osasun-prestakuntza espezializatuko tutore izendatua izateko eta tutoretza-funtzioak betetzeko, ebazpenaren dataren hurrengo egunetik aurrera hurrengo lau urteetan. Bost urteko egoiliar-aldia duten espezialitateetan kasuan, gaikuntzaren eta tutoretza-funtzioak betetzearen iraupena bost urtekoa izango da.

Zazpigarren oinarria.– Tutoretza-jarduera aitortzea.

Akreditatuko tutoretza-jarduera aitortu eta sustatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-prestakuntza espezializatuaren sistemaren antolamenduari buruzko martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Osakidetzako zuzendari nagusiaren 19/2020 Jarraibidean arabera (osasun-prestakuntza espezializatuan eta egindako lanaren ziurtagirian esku hartzen duten figurei buruzkoa).

Zortzigarren oinarria.– Akreditazioa baliogabetzea eta iraungitzea.

Akreditazioa baliogabetu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-prestakuntza espezializatuaren sistemaren antolamenduari buruzko martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuaren 26. artikuluan zehaztutako arrazoiengatik.

Akreditazioa iraungiko da haren indarraldia amaitzen denean.

Bederatzigarren oinarria.– Datu pertsonalak babesteari buruzko informazio-klausula.

Jakinarazten da datu pertsonalak «Irakaskuntza eta garapen profesionala» izeneko tratamendu-jarduerarako erabiliko direla, hauei jarraikiz: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuk Babesteko Erregelamendu Orokorra), Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia. Ezaugarri hauek ditu tratamenduak:

Arduraduna: Osasun Saila; Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

Xedea: osasun-prestakuntza espezializatuko tutoreak akreditatzeko eta berrakreditatzeko Osasun Sailak deitutako prozeduraren jarraipena eta eskabideen kudeaketa.

Legitimazioa: interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzeko behar den tratamendua (44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Lanbide Sanitarioak Antolatzekoa).

Hartzaileak: gaian eskumena duten administrazio publikoei eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: Eskubidea duzu zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko ere, informazio gehigarrian azaltzen den moduan.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, jo webgune honetara: <https://www.euskadi.eus/ac34aRatWebWar/control/fichaRat/893>

II. ERANSKINA

OSASUN-PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUKO TUTOREAK BERRIZ AKREDITATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengo oinarria.– Xedea.

Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan prestakuntza sanitario espezializatuko tutoreen akreditazioak berritzea.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza arduratuko da prozedura honetaz, eskabideak izapidetzeaz eta ebatzeaz.

Bigarren oinarria.– Eskatzaileen betekizunak.

1.– Berrakreditatzeko deialdi honetan parte hartu ahal izango dute osasun-prestakuntza espezializatuko tutoretza nagusiaren eginkizunak betetzeko akreditatuta eta izendatuta dauden pertsonak, Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-prestakuntza espezializatuaren sistemaren antolamenduari buruzko martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera, baldin eta emandako akreditazioa indarrean dagoen bitartean egoiliarrei tutoretza eman badiete, tutoretza-eginkizunak betetzen jarraitu nahi badute eta akreditaziorako eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen badituzte, baina dagokion akreditazio-ebazpenean adierazitako indarraldia amaitu da.

Hirugarren oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

1.– Epea.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzako Irakaskuntza eta Garapen Profesionaleko Zerbitzuak jakinarazpena egin eta hurrengo egunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea. Jakinarazpen horren bidez, akreditazioak 2023an iraungitzen dituzten tutoreei jakinaraziko zaie. Akreditazioak iraungi baino bost hilabete lehenago egingo da jakinarazpen hori, gutxienez.

Eskabideak aurkezteko epea dagokion akreditazioaren muga-egunaren aurreko hilaren egun berean amaituko da.

2.– Aurkezteko modua.

2.1.– Eskabide-eredua.

Berrakreditatzeko eskabidea ebazpen honen IV. eranskinean agertzen den ereduaren arabera aurkeztuko da.

2.2.– Aurkezteko lekua.

Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikokoan eskuragarri dagoen formulario normalizatuaren bidez (<https://www.euskadi.eus/y22-home/es/>), Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan eta Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 28. artikuluan lehenengo paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Interesdunek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta eskatzen zaien gainerako dokumentazioa. Halaber, eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.3.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak egiaztatuko du berrakreditaziorako eskatutako baldintzak betetzen direla, ofizioz, eta Profesional Sanitarioen Euskal Erregistroko datuak bilduko ditu. Baldintzak ezin badira egiaztatu erregistro horretan daturik ez dagoelako, interesdunari dokumentazio osagarria aurkezteko eskatuko zaio.

Eskabide-agiri normalizatuarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Egindako tutoretza-jardueren memoria (interesdunen eskura jarriko da gida bat, Osasun Sailaren Interneteko orrian, osasun-prestakuntza espezializatuari dagokion atalean).

b) Tutoretza-helburuen proiektua (hobekuntza-plana).

2.4.– Eskabideak zuzentzea.

Eskabideak ez badira osorik betetzen, edo haiekin batera ez bada adierazitako dokumentazio guztia aurkezten, eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko. Era berean, jakinarazi egingo zaio, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela.

Laugarren oinarria.– Eskabideen balorazioa.

Balorazio-batzorde batek aztertuko du eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak izendatuko ditu batzordekideak, eta honako kide hauek izango ditu: berriz akreditatzeko hautagaiak aurkezten diren ikastetxe edo unitateetako ikasketa-buruak, zentro edo unitate horietako irakaskuntza-batzordeko kide diren tutore akreditatuak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko eta Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzako ordezkariak. Gehienez 7 kide izango dira.

Balorazio-batzordeak izangaiak aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du, eta berriz egiaztatzeko irizpideak mantendu eta hobetu diren ebaluatuko du. Horretarako, egiaztapen-prozedurako baremo bera erabiliko du, baina itemen eskakizun-maila eta pisua aldatuko du, memoria curriculum bano gehiago baloratu dadin.

Gainera, kontuan hartuko dira Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak urtero egiten dituen inkesten kalitate-ebaluazioen emaitzak eta egoiliarren balorazioak, eta, prozedura amaituta, ebazpen-proposamena helaraziko dio.

Bosgarren oinarria.– Ebazpena.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak berariazko ebazpen arrazoitua emango du eskatutako berrakreditazioa onartzeko edo ukatzeko, hiru hilabeteko epean, eskabidea aurkezten den egunetik aurrera. Epe horren zenbaketa eten egingo da interesdunek eskabideak zuzentzeko eta hobetzeko eskatzen den epean.

Ebazpena eskatzaileari jakinaraziko zaio, eta irakaskuntza-zentro edo -unitatearen erakunde titularraren zuzendaritza-organoari eta dagokion irakaskuntza-batzordeari ere bai.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluekin eta hurrengoekin bat etorritik.

Aurreko akreditazioaren indarraldia amaitu baino lehen berrakreditazioa lortzen duten tutoreek ordura arteko izendapenari eutsiko diote.

Seigarren oinarria.– Datu pertsonalak babesteari buruzko informazio-klausula.

Jakinarazten da datu pertsonalak «Irakaskuntza eta garapen profesionala» izeneko tratamendu-jarduerarako erabiliko direla, hauei jarraikiz: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia. Ezaugarri hauek ditu tratamenduak:

Arduraduna: Osasun Saila; Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

Xedea: osasun-prestakuntza espezializatuko tutoreak akreditatzeko eta berrakreditatzeko Osasun Sailak deitutako prozeduraren jarraipena eta eskabideen kudeaketa.

Legitimazioa: interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzeko behar den tratamendua (44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Lanbide Sanitarioak Antolatzekoa).

Hartzaileak: gaian eskumena duten administrazio publikoei eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: eskubidea duzu zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko ere, informazio gehigarrian azaltzen den moduan.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, jo webgune honetara: <https://www.euskadi.eus/ac34aRatWebWar/control/fichaRat/893>

2023ko otsailaren 1a, asteazkena

III. ERANSKINA

OSASUN-PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUKO TUTORE IZATEKO AKREDITAZIO-ESKABIDEA					
DATU PERTSONALAK					
Abizenak		Izena		Sexua	
Jaiotze-data					
IFZ		Telefonoa			
Helbidea					
E-maila					
Herria		Probintzia		PK	
ZER IRAKASKUNTZA-UNITATETARAKO ESKATZEN DEN TUTORE GISA AKREDITATZEKO					
ESPEZIALITATEA					
DATU PROFESIONALAK					
Lantokia					
Herria		Probintzia			
ERANSTEN DUEN DOKUMENTAZIOA					
<input type="checkbox"/>	Tutoretza helburuen proiektua				
<input type="checkbox"/>	Azken 5 urteetan familia eta komunitate erizaintzaren arloko ikerketa eta/edo komunikazio zientifikoko proiektu batean parte hartu izana egiaztatzen duen agiria (Familia eta komunitate erizaintza espezialitatean tutore gisa akreditatu nahi dutenentzat)				

ESKATZEN DU:

Eskabide hau onartzea eta osasun-zientzietan espezializatutako osasun-prestakuntzako tutore gisa AKREDITAZIOA ematea, 2023ko urtarrilaren 13ko Ebazpenaren bidez egindako deialdiaren baldintzak onartuta.

Sinatzen den egunean

Eskatzailearen sinadura

PLANGINTZA, ANTOLAMENDU ETA EBALUAZIO SANITARIOKO ZUZENDARITZA

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta datuak babestearen arloan indarrean dagoen gainerako araudia betez, jakinarazten da izaera pertsonaleko datuak «Prestakuntza eta garapen profesionala» izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla. Ezaugarri hauek ditu tratamenduak:

Arduraduna: Osasun Saila; Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

Helburua: eskabideen kudeaketan eta osasun-prestakuntza espezializatua emateko tutoreak akreditatzeko eta berrakreditatzeko prozeduraren jarraipena, Osasun Sailak deituta.

Lege-oinarria: interes publikoaren mesedetan zein tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak gauzatzean egindako zeregina betetzeko beharrezkoa suertatzen den tratamendua da (2003ko azaroaren 21eko 44/2003 Legea, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa).

Jasotzaileak: gaiaren gaineko eskumena duten Administrazioei jakinarazi ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: zeure datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea duzu; baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko ere, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Informazio gehigarria: web helbide honetan aurkitu ahal izango duzu datu pertsonalen babesari buruzko informazio gehiago: Tratamendu-Jardueren Erregistroa (TJE) (Euskadi.eus).

2023ko otsailaren 1a, asteazkena

IV. ERANSKINA

OSASUN-ZIENTZIETAKO PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUAN TUTOREA IZATEKO BERRAKREDITAZIO-ESKABIDEA					
DATU PERTSONALAK					
Abizenak		Izena		Sexua	
Jaiotze-data					
IFZ		Telefonoa			
Helbidea					
E-maila					
Herria		Probintzia		PK	
ZER IRAKASKUNTZA-UNITATETARAKO ESKATZEN DEN TUTORE GISA BERRAKREDITATZEKO					
ESPEZIALITAEA					
DATU PROFESIONALAK					
Lantokia					
Herria		Probintzia			
DOCUMENTACION QUE ADJUNTA					
<input type="checkbox"/>	Egindako tutoretza-jarduerei buruzko txostena				
<input type="checkbox"/>	Tutoretza-helburuen proiektua (hobekuntza-plana)				

ESKATZEN DU:

Eskabide hau onartzea eta osasun-zientzietan espezializatutako osasun-prestakuntzako tutore gisa BERRAKREDITAZIOA ematea, 2023ko urtarrilaren 13ko Ebazpenaren bidez egindako deialdiaren baldintzak onartuta.

Sinatzen den egunean.

Eskatzailearen sinadura

PLANGINTZA, ANTOLAMENDU ETA EBALUAZIO SANITARIOKO ZUZENDARITZA

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta datuak babestearen arloan indarrean dagoen gainerako araudia betez, jakinarazten da izaera pertsonaleko datuak «Irakaskuntza eta garapen profesionala» izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla. Ezaugarri hauek ditu tratamenduak:

Arduraduna: Osasun Saila; Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

Helburua: eskabideen kudeaketa eta osasun-prestakuntza espezializatua emateko tutoreak akreditatzeko eta berrakreditatzeko prozeduraren jarraipena, Osasun Sailak deituta.

Lege-oinarria: interes publikoaren mesedetan zein tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak gauzatzean egindako zeregina betetzeko beharrezkoa suertatzen den tratamendua da (2003ko azaroaren 21eko 44/2003 Legea, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa).

Jasotzaileak: gaiaren gaineko eskumena duten Administrazioei jakinarazi ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: zeure datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea duzu; baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko ere, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Informazio gehigarria: web helbide honetan aurkitu ahal izango duzu datu pertsonalen babesari buruzko informazio gehiago: Tratamendu-Jardueren Erregistroa (TJE) (Euskadi.eus).